

hain zuzen Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2003ko ekainaren 26ko 2003/55/EE Zuzentarauak ezarritakora egokitzeko. Zuzentzarau hori, gas naturalaren barneko merkatuetarako arau erkideei buruzkoa da.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6795

AGINDUA, 2007ko azaroaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetara sartzeko aukeratze-prozedura deitzen duen 2007ko azaroaren 19ko Aginduaren akatsak zuzentzen dituena.

155/1993 Dekretuak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duenak, 24.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, maila bereko xedapen edo egintzaren bidez zuzenduko dira akatsak, testuingurutik argi ondorioztatzen ez badira eta zuzentzeak xedapen, egintza edo iragarkiarenekin benetako edo itxurazko edukia edo zentzua aldatzea ekarri ahal badu.

Mota horretako akatsak ikusi dira Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetara sartzeko aukeratze-prozedura deitzen duen 2007ko azaroaren 19ko Aginduaren 2. oinarriaren 2.2.3. atalean, III. eranskinean eta V. eranskinean (2007ko azaroaren 26ko EHAA, 227. alea), eta, horregatik, zuzendu egin behar dira.

Horren arabera, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetara sartzeko aukeratze-prozedura deitzen duen 2007ko azaroaren 19ko Aginduan ikusi diren akatsen zuzenketari ekitea:

drocarburos, con el fin de adaptarla a lo dispuesto en la Directiva 2003/55/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de junio de 2003, sobre normas comunes para el mercado interior del gas natural.

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6795

ORDEN de 26 de noviembre de 2007, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, de corrección de errores de la Orden de 19 de noviembre de 2007, por la que se convoca procedimiento selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional y Profesores y Profesoras de Escuelas Oficiales de Idiomas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 24.2.b) del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los errores u omisiones que no se deduzcan claramente del contexto y cuya rectificación pueda suponer una real o aparente modificación del contenido o sentido de la disposición, acto o anuncio, se salvarán mediante disposición o acto del mismo rango.

Advertidos errores de dicha índole en el apartado 2.2.3 de la base 2, en el anexo III y en el anexo V de la Orden de 19 de noviembre de 2007, por la que se convoca procedimiento selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional y Profesores y Profesoras de Escuelas Oficiales de Idiomas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 227, de 26 de noviembre de 2007, se procede a su oportuna corrección.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo único.— Proceder a las siguientes correcciones de los errores advertidos en la Orden de 19 de noviembre de 2007, por la que se convoca procedimiento selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional y Profesores y Profesoras de Escuelas Oficiales de Idiomas de la Comunidad Autónoma del País Vasco:

– 2. oinarriaren 2.2.3. atalean. 27545. orrian, hau esaten den tokian:

«b) Haren jatorrizko kidegoan karrerako funtzionario gisa zortzi urte, gutxienez, jardun izana».

Hau esan behar da:

«b) Haren jatorrizko kidegoan karrerako funtzionario gisa sei urte, gutxienez, jardun izana.»

– Euskarazko testuaren 27592. orrian, III. eranskinean -«Irakaskuntzarako titulu baliokideak (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)»- eta gaztelaniazko testuaren 27609. orrian, III. eranskinean -«Irakaskuntzarako titulu baliokideak (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)»-, hau erantsi:

– En el apartado 2.2.3 de la base 2, página 27545, donde dice:

«b) Haber permanecido en su cuerpo de origen un mínimo de ocho años como personal funcionario de carrera.»

Debe decir:

«b) Haber permanecido en su cuerpo de origen un mínimo de seis años como personal funcionario de carrera.»

– En la página 27592 del anexo III «Títulos equivalentes a efectos de docencia (Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria)», del texto en euskera y en la página 27609 del anexo III «Títulos equivalentes a efectos de docencia (Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria)» del texto en castellano añadir lo siguiente:

Espezialitatea	Titulazioak
Eraikuntza zibilak eta etxegintza	<ul style="list-style-type: none"> – Arkitekto teknikoa – Industria-ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak – Herri-Lanetako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak – Topografia ingeniari teknikoa
Informatika	<ul style="list-style-type: none"> – Estatistikan diplomatua – Gestio-informatikako ingeniari teknikoa – Sistemen informatikako ingeniari teknikoa – Telekomunikazioetako ingeniari teknikoa, Telematika espezialitatean

Especialidad	Titulaciones
Construcciones Civiles y Edificación	<ul style="list-style-type: none"> – Arquitecto Técnico – Ingeniero Técnico Industrial, en todas sus especialidades – Ingeniero Técnico de Obras Públicas, en todas sus especialidades – Ingeniero Técnico en Topografía
Informática	<ul style="list-style-type: none"> – Diplomado en Estadística – Ingeniero Técnico en Informática de Gestión – Ingeniero Técnico en Informática de Sistemas – Ingeniero Técnico de Telecomunicación, especialidad en Telemática

– Euskarazko testuaren 27595. orrian, V. eranskinean -«Gai-zerrendak»- eta gaztelaniazko testuaren 27612. orrian, V. eranskinean -«Gai-Zerrendak»-, «Euskara eta literatura» espezialitatean, gai hauek erantsi:

«72.– Itzulpengintza oraingo euskal literaturan.

73.– Atzerriko euskalariak.

– En la página 27595 del anexo V «Temarios», del texto en euskera y en la página 27612 del anexo V «Temarios» del texto en castellano, en la especialidad de «Lengua y Literatura Vasca», añadir los siguientes temas:

«72.– La traducción en la literatura vasca actual.

73.– Los vascólogos extranjeros.

74.– Euskarazko hedabideak. Kazetaritza-hizkera. Euskarazko egunkari eta aldizkariak. Irratia, telebista eta zinema. Publizitatea.

75.– Euskararen irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren inguruko oraingo teknologiak. Interneteko informazioa.»

Vitoria-Gasteiz, 2007ko azaroaren 26a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADO.

Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

6796

EBAZPENA, 2007ko urriaren 26koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Honen bidez, Cti Soft, SL enpresari emakumezkoen eta gizonezkoen aukera berdintasunerako lankidetzarako erakundearen izaera onartu zaio.

Azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez, emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetzarako erakundearen figura sortu zen honako xede hauekin: batetik, gizarte- eta lan-esparruan aukera-berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak bultzatzea; bestetik, aipatutako esparruetan hainbat entitateri egindako lana aitortzea.

Hortaz, Ricardo González Lafuente jaunak, CTI Soft, SL enpresaren izenean aurkeztutako eskaria aztertuta, eta enpresan emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako politika bat garatzeko Entitateak sinatutako dokumentuaren balorazioa eginda,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– CTI Soft, SL enpresak erakundearen emakumezko eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako politika bat garatzeko sinatutako konpromiso-dokumentua oinarri hartuta, enpresari emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetzarako erakundearen izaera aitortzea, azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuak -emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetzarako erakundearen figura sortu zuen- ezarritako irizpide eta baldintzen arabera.

Bigarrena.– CTI Soft, SL enpresak aitorkuntza erabili ahal izango du egoki ikusten dituen irudi-osagai guztietan, aitorkuntzak indarrean dirauen bitartean.

74.– Medios de comunicación en euskera: El lenguaje periodístico. Periódicos y revistas en euskera. Radio, televisión y cine. La publicidad.

75.– Las tecnologías actuales en relación con la enseñanza y el aprendizaje de la lengua vasca. La información en internet.»

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de noviembre de 2007.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

6796

RESOLUCIÓN de 26 de octubre de 2007, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se otorga el reconocimiento de Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres a la empresa CTI-Soft, S.L.

Mediante Decreto 424/1994, de 8 de noviembre se creó la figura de Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres, con el fin de incentivar las iniciativas que pudieran surgir en el ámbito sociolaboral a favor de la igualdad de oportunidades, así como de reconocer la labor realizada por las distintas entidades en dicho ámbito.

En su virtud, a la vista de la solicitud presentada por D. Ricardo González Lafuente, en representación de CTI Soft, S.L. y de la valoración realizada del documento de compromiso suscrito por la Entidad para el desarrollo de una política de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres en la empresa,

RESUELVO:

Primero.– Otorgar el reconocimiento como Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres a la empresa CTI Soft, S.L., en los términos y condiciones establecidas en el Decreto 424/1994, de 8 de noviembre, por la que se crea la figura de Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres, en base al documento de compromiso suscrito por dicha Entidad para el desarrollo de una política de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres en su organización.

Segundo.– CTI Soft, S.L., podrá utilizar dicho reconocimiento en cuantos elementos corporativos de imagen considere oportunos, mientras el mismo continúe vigente.